

Don Kijote Mantxa'ko

PEDRO BERRONDO

Oiartzunen jaio zen 1919an. Abadea.

Liburu asko ez, baina bai orri asko itzuli ditu: *Don Kixote Mantxa'ko*, 1976an lehen liburukia, eta bigarrena 1995ean; horretaz gainera, 1987an Telletxea Idigorasen *Loiolako Inazio. Bakarrik eta Oiñez* argitaratu zuen eta Pilar Cuadraren *Perfil y pulso de Guipúzcoa*.

Don Kijote Mantxa'ko

PEDRO BERRONDO

VIII ATALBURUA

BUKAERA ONA, DON KIJOTE KEMENTSUAK AIZE-ERROTETAKO BURRUKAIZUN IKARAGARRI TA ITXURAGABE ARTAN IZAN ZUANA; BESTE ZENBAIT GERTAIZUN ERE BAI, BENETAN GOGOANGARRIAK.

Ontan bada, ogei t'amar edo berrogeiren bat aize-errot bixtatu zituzten landa artan; eta Don Kijote'k ikusi zituan bezain laister, bere ezkutariari:

—On-bearrak daramazki gure gauzak, geurok desira genezakean baiño zuzenago; begira or, Santxo Panza lagun, non ageri diran ogei t'amarren bat erraldoi-tzar; beroiekin egin bear dut burrukan, eta guzti oiei bizia kendu eta oien ondakiñak dirala bide, asiko gera aberasten; Jainkoaren serbitzurakoa bait-da onelako azi txarra lurraren gaiñetik garbitzea.

—Zeñ erraldoi? —Santxo'k.

—An ikusten dituzun oiek —nagusiak erantzun— besaluze oiek, batzuen batzuek izan oi dituzte ia bi leguaraiño-koak ere beren besoak.

—Begira beza berorrek —Santxo'k erantzun— an ageri diran aiek ez dira gero erraldoiak, aize-errotak baizik; eta beso diruditenak errota-egalak dira, ai-

Don Quijote de la Mancha

MIGUEL DE CERVANTES

CAPITULO VIII

DEL BUEN SUCESO QUE EL VALEROSO DON QUIJOTE TUVO EN LA ESPANTABLE Y JAMAS IMAGINADA AVENTURA DE LOS MOLINOS DE VIENTO, CON OTROS SUCESOS DIGNOS DE FELICE RECORDACION

En esto, descubrieron treinta o cuarenta molinos de viento que hay en aquel campo, y así como don Quijote los vió, dijo a su escudero:

—La ventura va guiando nuestras cosas mejor de lo que acertáramos a desear; porque ves allí, amigo Sancho Panza, dónde se descubren treinta, o pocos más, desaforados gigantes, con quien pienso hacer batalla y quitarles a todos las vidas, con cuyos despojos comenzaremos a enriquecer; que ésta es buena guerra, y es gran servicio de Dios quitar tan mala simiente de sobre la faz de la tierra.

—¿Qué gigantes? —dijo Sancho Panza.

—Aquellos que allí ves —respondió su amo— de los brazos largos, que los suelen tener algunos de casi dos leguas.

—Mire vuestra merced —respondió Sancho— que aquellos que allí se parecen no son gigantes, sino molinos de viento, y lo que en ellos parecen brazos

zeak bira-bultza-ta errotarriari eragiten diotenak.

—Ezagan da bai —Don Kijote'k erantzun— burrukaizunetik ortan ari gabea zerana; aiek erraldoiak dira izan, eta beldurrez bazaude alde-egizu ortik eta asi zaitte errezuan, ni aien aurka burruka zorrotz ta ezberdiñean sartzen naizen bitartean.

Eta au esan-ta, eragin zion Rozinante bere zaldiari, Santxo ezkutariak egiten zizkion oiuaak aintzakotzat artzeke: ekitera zijoan aiek ez zirala erraldoiak alegia, aize-errotak baizik dudarikan gabe. Baiña aih bere-artan zijoan, erraldoiak zirala alegia, ez zituan bere ezkutari Santxo'ren oiua jaso ere egiten; ezta zer ziranik ikusten ere, bertatik bertara egon arren, baizik-eta auxe esanaz zijoan oiuka:

—Ez iges egin, ez, beldurti nazkagarririk; zaldun bat bakarra da-ta ekiten dituzena.

Aize pixkat arrotu zan une artantxe, eta egal aundi aiek bira-naiean asi ziran; ori Don Kijote'k ikusi-ta:

—Pagatu bearko didazute bai, naizta Briareo erraldoiaren besoak baiño ugarriagoak mugitzen badituzute ere.

Au esan-ta, biotz osoa bere andere Dulzinearen eskuetan ipiñiaz, onelako esualdian laguntza emateko eskatuaz alegia, rodelaz txit babesturik, lantza bere ointxokoan tinko, Rozinante'ren lauazka aalguzian ekin zion eta, jo zuan bete-betea aurren-aurreneko errota; eta lantzakada egalean ematekoan, aih bizi biraa ziuan aizeak, lantza xeetu-ta utzi zuan, korapillo batean eramanaz zaldia ta zalduna; lurrean jira-biraka joan zan au erabat ondatua. As-toak korri-aal guzian, etorri zitzaion laguntzera Santxo Panza; eta eldu zanean, eziñ mugiturik zegola arkitu zuan; alakoxe kolpea izan zan, Rozinante'k arrerazi ziona.

—Jainkoa lagun! —Santxo'k—; ez al nion nik esan berorri, ongi begiratzeko zer egiten zuan; aize-errotak zirala, ez besterik; eta ori ez ikustea, beste errota-zen batzuk bere baitan zituanak bakarrik zezakeala?

son las aspas, que, volteadas del viento, hacen andar la piedra del molino.

—Bien parece —respondió don Quijote— que no estás cursado en esto de las aventuras: ellos son gigantes; y si tienes miedo, quítate de ahí, y ponte en oración en el espacio que yo voy a entrar con ellos en fiera y desigual batalla. Y diciendo esto, dió de espuelas a su caballo Rocinante, sin atender a las voces que su escudero Sancho le daba, advirtiéndole que sin duda alguna eran molinos de viento, y no gigantes, aquellos que iba a acometer. Pero él iba tan puesto en que eran gigantes, que ni oía las voces de su escudero Sancho, ni echaba de ver, aunque estaba ya bien cerca, lo que eran; antes iba diciendo en voces altas:

—Non fuyades, cobardes y viles criaturas; que un solo caballero es el que os acomete.

Levantóse en esto un poco de viento, y las grandes aspas comenzaron a moverse, lo cual visto por don Quijote, dijo:

—Pues aunque mováis más brazos que los del gigante Briareo, me lo habéis de pagar.

Y en diciendo esto, y encomendándose de todo corazón a su señora Dulcinea, pidiéndole que en tal trance le socorriese, bien cubierto de su rodela, con la lanza en el ristre, arremetió a todo el galope de Rocinante y embistió con el primero molino que estaba delante; y dándole una lanzada en el aspa, la volvió el viento con tanta furia, que hizo la lanza pedazos, llevándose tras sí al caballo y al caballero, que fué rodando muy maltrecho por el campo. Acudió Sancho Panza a socorrerle, a todo el correr de su asno, y cuando llegó, halló que no se podía menear: tal fué el golpe que dió con él Rocinante.

—¡Válame Dios! —dijo Sancho—. ¿No le dije yo a vuestra merced que mirase bien lo que hacía, que no eran sino molinos de viento, y no lo podía ignorar sino quien llevase otros tales en la cabeza?

—Isildu zaite, Santxo lagun —Don Kijote'k erantzun— guda-gauzak beste edozer baiño aldakorragoak dira-ta; are-ago ta nik uste dudanez, eta alaxen da noski egi egia, Freston jakintsu ark, neri gela ta liburuak lapurtu zizkidanak, erraldoi-ok errota biurtu ditu, oiek bentzuturiko omena neri kentzearren; alakoxe tirria bait-dit; baina azken-azkenean, alferrik izango dira aren biurrikeriak nere benetako ezpataren aurka.

—Jainkoak dezala aal bezela —Santxo'k erantzun— eta zutitzen lagundu zion; naiko bizkar-autsia zegon Rozinante; baiña onen gainera igo zan ala ere berriro.

Eta egindako burrukaz mintza ta mintza, Puerto Lapize'ko bideari jarraitu zion; zera zion Don Kijote'k eziñ zitekeela toki ura burrukaizun ugari ta askorik gabe izan, oso bait-zan oizko pasa-bidea; baiña txit naigabeturik zijoa, lantzak utsegin ziola-ta; eta ezkutariari itzegiñaz, ala zion:

—Irakurri izana gogoan dut, espainiar zaldun batek, izenez Diego Perez de Vargas, burrukan ari zala ezpata autsi zitzaionean, arte-arbol batetik adar lodi bat artu zuala; eta berakin alako gauzak egin zituala egun artan eta ainbeste mairu xee-tu, Matxuka izengoitia gelditu zitzaiola eta arrezkero Vargas eta Matxuka deitura izan zutela naiz berak naiz bere ondorengoek. Ara, onengatik ari natzaizu, egokitzen zaidan lenbiziko aritz edo arte-arbolari adar lodi bat kentzeko asmoa dut, arako ura bezain sendoa; eta alako ekintza aundiak egingo ditudala uste dut bere bitartez, pozez eder-etsiko duzu aiek ikustera etortzea merezi izana, eta ia-ia sinistuziñeko gauzen testigu izana.

—Jainkoari on dakiola —Santxo'k—; dan-dana berorrek dion bezelaxe sinisten dut; baiña zuzendu bedi pixkat, saieska dijoala dirudi-ta; erorkaren erresumiñagatik izango da noski.

—Alaxen da bai —Don Kijote'k erantzun—; eta oiñazeagatik kejtzen ez ba

—Calla, amigo Sancho —respondió don Quijote—; que las cosas de la guerra, más que otras, están sujetas a continua mudanza; cuanto más que yo pienso, y es así verdad, que aquel sabio Frestón que me robó el aposento y los libros ha vuelto estos gigantes en molinos, por quitarme la gloria de su vencimiento: tal es la enemistad que me tiene; mas, al cabo, han de poder poco su malas artes contra la bondad de mi espada.

—Dios lo haga como puede —respondió Sancho Panza.

Y, ayudándole a levantar, tornó a subir sobre Rocinante, que medio despaldao estaba. Y, hablando en la pasada aventura, siguieron el camino del Puerto Lápice, porque allí decía don Quijote que no era posible dejar de hallarse muchas y diversas aventuras, por ser lugar muy pasajero, sino que iba muy pesadoso, por haberle faltado la lanza; y diciéndoselo a su escudero, le dijo:

—Yo me acuerdo haber leído que un caballero español llamado Diego Pérez de Vargas, habiéndosele en una batalla roto la espada, desgajó de una encina un pesado ramo o tronco, y con él hizo tales cosas aquel día, y machucó tantos moros, que le quedó por sobrenombre Machuca, y así él como sus descendientes se llamaron desde aquel día en adelante Vargas y Machuca. Hete dicho esto porque de la primera encina o roble que se me depare pienso desgajar otro tronco, tal y tan bueno como aquél que me imagino, y pienso hacer con él tales hazañas, que tú te tengas por bien afortunado de haber merecido venir a vellas y a ser testigo de cosas que apenas podrán ser creídas.

—A la mano de Dios —dijo Sancho—: yo lo creo todo así como vuestra merced lo dice. Pero enderécese un poco; que parece que va de medio lado, y debe de ser del molimiento de la caída.

—Así es la verdad —respondió don Quijote—; y si no me quejo del dolor, es

naiz, zeragatik da: ez bait-dagokie zaldun ibiltariei inolazko zauriagatik kejtzerik, naiz-ta bertatik gibel-erraiak jarioka izan.

—Ori orrela bada, nik ez dut zer esanik —Santxo'k erantzun—; baiña poz-tuko naiz, Alajainkoa, berori kejtzen bada zerbaitek miñ-ematzen dionean. Ara bai ta nik beintzat aalik-eta miñik ariñenaren keja eman egingo dut, baldin-ta ez-kejtze ori, zaldun ibiltarien ezkutarieneztat ere artu bear ez bada.

Ez zuan farrik egiteke utzi Don Kijote'k, bere ezkutariaren malizi-gabea; eta onela, noiz-nai ta nola-nai keja zitekeala adierazi zion, gogoz naiz gogorik gabe; artean ez bait-zuan irakurri kontrakorik ezer, Zaldungo Ordenan.

Bazkaltzeko garaia ba zala konturatzeko esan zion Santxo'k. Bearrik ez zuala oraindik, erantzun zion nagusiak; jateko berak nai zuanean. Baimen onekin, bada, jarri zan Santxo aal zuan ongiena bere asto-gaiñean, eta zorro-barrendik an ipiñitakoak atera-ta, an zijoan jan-ta-joan bere nagusiaren atzetik lasai-lasai; eta noizik beinka aiñ gustora gora-jasotzen zuan zatoa, inbidia lezaiokean baita Malaga'ko ardo-zalerik moko-fiñenak ere. Eta zanga-zanga edanez zijoan bitartean, ez zitzaion bururaten nagusiak egindako eskeintzarik bat-ere; eta burruka-billa ibiltzeari ez zerizkion lana, jai osoa baizik, naiz-ta burruka zaillak izan. Orra bada, arbol batzuen tartean pasa zuten gau ura, eta beraietako bateri kendu zion Don Kijote'k adar iar bat lantzatarako alde-alde serbi zezaiokena; eta berari ipiñi zion autsitako artatik kenduriko burdiña. Ez zuan lorik artu Don Kijote'k gau artan guzian, bere andere Dulzinea'ganako gogoetan; bere liburuetan irakurritako erara nai bait-zuan, gau osoak lorik egiteke zaldun ibiltarietaz igarotzen zituztenean alegia, basamortu ta oianetan beren andereenganako gogae-tan ziardutela. Ez zuan alaxen igaro Santxo Panza'k; urdailla beterik zuan-ta ez noski txikori-urez, loaldi bakar batean

porque no es dado a los caballeros andantes quejarse de herida alguna, aunque se le salgan las tripas por ella.

—Si eso es así, no tengo yo que replicar —respondió Sancho—; pero sabe Dios si yo me holgara que vuestra merced se quejara cuando alguna cosa le doliera. De mí sé decir que me he de quejar del más pequeño dolor que tenga, si ya no se entiende también con los escuderos de los caballeros andantes eso del no quejarse.

No se dejó de reír don Quijote de la simplicidad de su escudero; y así, le declaró que podía muy bien quejarse como y cuando quisiese, sin gana o con ella; que hasta entonces no había leído cosa en contrario en la orden de caballería. Dijole Sancho que mirase que era hora de comer. Respondióle su amo que por entonces no le hacía menester; que comiese él cuando se le antojase. Con esta licencia, se acomodó Sancho lo mejor que pudo sobre su jumento, y sacando de las alforjas lo que en ellas había puesto, iba caminando y comiendo detrás de su amo muy de su espacio, y de cuando en cuando empinaba la bota, con tanto gusto, que le pudiera envidiar el más regalado bodegonero de Málaga. Y en tanto que él iba de aquella manera menudeando tragos, no se le acordaba de ninguna promesa que su amo le hubiese hecho, ni tenía por ningún trabajo, sino por mucho descanso, andar buscando las aventuras, por peligrosas que fuesen.

En resolución, aquella noche la pasaron entre unos árboles, y del uno dellos desgajó don Quijote un ramo seco que casi le podía servir de lanza, y puso en él el hierro que quitó de la que se le había quebrado. Toda aquella noche no durmió don Quijote, pensando en su señora Dulcinea, por acomodarse a lo que había leído en sus libros, cuando los caballeros pasaban sin dormir muchas noches en las florestas y despoblados, en-

igaro zuan gau osoa; eta nagusiak deiegin ez balio, ez zuten esnaaziko noski eguzkiaren dizdirek aurpegian jotzen zutenak, ezta txorien kantak ere, asko izan arren eta txorro-txio alaiean agurka ari egun jaio-berriari.

Jeiki zanean, ikutuxka bat eman zion zatoari eta bezpera-gauean baiño zimurxeago arkitu zuan; atsegabetu zitzaion biotz-ondoa; bai bait-zakien, ez zutela aren utsa bereala betetzerik izango, bide ari jarraituaz.

Don Kijote'k ez zuan gosarixikirik nai izan, oroitzapen gozoak autatu bait zituan janarizat esanik dagon bezela. Artu zuten berriz leendik zekarten Puerto Lapize'rako bidea, eta, egunaren iruak aldera, bistatu zuten urrutira.

—Emen bai —Don Kijote'k ikusi ta bereala—, anai Santxo Panza, sartu genezazke eskuak ukalondoraiño, onako burrukaizun omen dirala dioten oietan; baiña kontu izan, munduko estualdirik larrietan ikusten banazu ere, ez duzu zure ezpatarik eskuz ukitu ere neri egin bear neri laguntzeko, ikusten ez baduzu beintzat, nere aurka ari diranak beeko jende mutur-okerrak dirala; orduan bai, lagundu zenezaidake; baiña, zaldunak balira, ez zaizu iñolaz ere zillegi, eta zalduntza-legetan ez dago ontzat emana zuk neri laguntzea, zaldun armatua izaten zeraneño.

—Benetan jauna —Santxo'k erantzun— zintzo beteak izango dira berorren esanak onako ontan; areago-ta, ni nerez pake-zalea bait-naiz eta auzi-iskanbilletan sartzearen kontrakoa; egia da bai, alabaiña, nere buruaren defentsarekiko ortan ez dut lege oien ajola aundirik izango; naiz Jainko-legeak naiz gizalegeak onesten bait-du, nork bere burua gaizki-leengandik zaintzea.

—Nik ez diot gutxiagorik —Don Kijote'k erantzun—, baiña zuk neri zaldunen aurka laguntzeko ortan, beren neurrian eutsi bear diezu zure barrengo bero-bultzadei.

tretenidos con las memorias de sus señoras. No la pasó así Sancho Panza; que, como tenía el estómago lleno, y no de agua de chicoria, de un sueño se la llevó toda, y no fueran parte para despertarle, si su amo no lo llamara, los rayos del sol, que le daban en el rostro, ni el canto de las aves, que, muchas y muy regocijadamente, la venida del nuevo día saludaban. Al levantarse dió un tiento a la bota, y hallóla algo más flaca que la noche antes, y afligióse el corazón, por parecerle que no llevaban camino de remediar tan presto su falta. No quiso desayunarse don Quijote, porque, como está dicho, dió en sustentarse de sabrosas memorias. Tornaron a su comenzado camino del Puerto Lápice, y a la obra de las tres del día le descubrieron.

—Aquí —dijo en viéndole don Quijote— podemos, hermano Sancho Panza, meter las manos hasta los codos en esto que llaman aventuras. Mas advierte que, aunque me veas en los mayores peligros del mundo, no has de poner mano a tu espada para defenderme, si ya no vieres que los que me ofenden es canalla y gente baja, que en tal caso bien puedes ayudarme; pero si fueren caballeros, en ninguna manera te es lícito ni concedido por las leyes de caballería que me ayudes, hasta que seas armado caballero.

—Por cierto, señor —respondió Sancho—, que vuestra merced sea muy bien obedecido en esto; y más, que yo de mío me soy pacífico y enemigo de meterme en ruidos ni pendencias; bien es verdad que en lo que tocara a defender mi persona no tendré mucha cuenta con esas leyes, pues las divinas y humanas permiten que cada uno se defienda de quien quisiere agraviarle.

—No digo yo menos —respondió don Quijote—; pero en eso de ayudarme contra caballeros has de tener a raya tus naturales ímpetus.

Argudio-otan ziardutela, San Benito'ren Ordenako fraile bi agertu ziran bidean, bi dromedariren gainean zaldizko; izan ere ez ziran tikiagoak, aiek zetozen mandoak. Beren guardasol, bide-rako betaurreko, ta guzi zekarten.

Atzetik, karroxa bat zetorren, inguruan lau-bost zaldizko zituala laguntzeko, eta bi manda-mutil oiñez. Bizkaitar andere bat zan, gero jakin zanez, Sebilla aldera zijoana; an bait-zeukan bere senarra, Indietara zijoana oore aundiko kargu-dun. Ez zetozen onekin batera fraileak, naiz ta bide berean etorki; baiña bixtatu zituan bezain laister Don Kijote'k, onela esan zion bere ezkutariari:

—Edo oso oker nago ni, edo onetxek izan bear du sekulan ikusi dan burrukai-zunik famatuena; ara, an nabari diran dunbuilo beltz aiek mira-eragille batzuk dira noski, eta alaxen dira dudarik gabe, karroxa artan printzesaren bat lapurtu-ta daramatenak; eta okerkeri ori, nere almenaren almenez desegin bearra da.

—Au aatikan aize-errotena baiño gaiztoagoa izango da —Santxo'k—. Begira, jauna, San Benito'ren fraileak dirala aiek, eta karroxa berriz, bidajejan dijoan jenderen batena noski. Begira, nik au diodala, ongi begiratzeko zer egiten duan, deabruak lilluratu ez dezan.

—Leen ere esan dizut, Santxo —Don Kijote'k erantzun—, ezer gutxi dakizula burrukaizun-gai auetaz; nik diodana egi-egia da, ta bereala ikusiko duzu.

Au esan-ta, aurreratu zan eta fraileak zetozen bidean erdiz-erdi antxe jarri zan; eta bere ustez, bere esanak adi-aal izate-raiño urbildu ziranean, oiuka esan zien:

—Jendetzar madarikatu orrek, laga ber-bertan karroxa ortan gogoz-kontra daramazkitzuten printzesa goeneko oiek; ala egiñ-ezik, para zaitzete bizia ber-bertan ematera, zuen gaiztakerien ordaiñez.

Geldiazi zituzten beren mandoak fraileek, eta arriturik gelditu ziran, bai Don Kijote'ren itxuraz bai aren arrazoieta; eta onela erantzun zioten:

—Digo que así lo haré —respondió Sancho—, y que guardaré este preceto tan bien como el día del domingo.

Estando en estas razones, asomaron por el camino dos frailes de la orden de San Benito, caballeros sobre dos dromedarios; que no eran más pequeñas dos mulas en que venían. Traían sus antojos de camino y sus quitasoles. Detrás dellos venía un coche, con cuatro o cinco de a caballo que le acompañaban y dos mozos de mulas a pie. Venía en el coche, como después se supo, una señora vizcaína, que iba a Sevilla, donde estaba su marido, que pasaba a las Indias con un muy honroso cargo. No venian los frailes con ella, aunque iban el mesmo camino; mas apenas los divisó don Quijote, cuando dijo a su escudero:

—O yo me engaño, o ésta ha de ser la más famosa aventura que se haya visto; porque aquellos bultos negros que allí parecen deben de ser, y son, sin duda, algunos encantadores que llevan hurtada alguna princesa en aquel coche, y es menester deshacer este tuerto a todo mi poderío.

—Peor será esto que los molinos de viento —dijo Sancho—. Mire, señor, que aquellos son frailes de San Benito, y el coche debe de ser de alguna gente pasajera. Mire que digo que mire bien lo que hace, no sea el diablo que le engañe.

—Ya te he dicho, Sancho —respondió don Quijote—, que sabes poco de achaque de aventuras: lo que yo digo es verdad, y ahora lo verás.

Y diciendo esto, se adelantó y se puso en la mitad del camino por donde los frailes venían, y, en llegando tan cerca, que a él le pareció que le podrían oír lo que dijese, en alta voz dijo:

—Gente endiablada y descomunal, dejad luego al punto las altas princesas que en ese coche lleváis forzadas; si no, aparejaos a recibir presta muerte, por justo castigo de vuestras malas obras.

Detuvieron los fraile las riendas, y quedaron admirados, así de la figura de don Quijote como de sus razones, a las cuales respondieron:

—Zaldun jauna, gu ez gera gero parte txarreko gizontzarren batzuk, gu San Benito'ren fraile bi gera, gure bidean goazenak; eta, karroxa ortan printzesen batzuk gogoz-kontra ote datozen, guk ez dakigu.

—Itz leunak alferrik izango dira nerekin; ezagutzen zaituztet bai, zakur-jende maltzur oiek —Don Kijote'k erantzun—; eta, geiagoko erantzunik itxo-egiteke, eragin zion Rozinante'ri, eta, lantza beeruntz, ekin zion aurreneko fraileari; eta alako beroaldi bizian ekin ere, fraileak nai-ta bere burua lurrera bota ez balu, nai-ezik bearko zuan lurrera erauzia; eta oso illik ezean, aski zauriturik bai noski.

Bigarren fraileak, bere adiskideari zernola egin zioten ikusirik, eragin zion bere mando aundi gazteluari, eta an abiatu zan landan barrena antxintxika, aizea bera baño ariñago, Santxo Panza'k, frailea lurrean eroria ikusi zuanean, axkar-axkar asto-gaiñetik jeitxi-ta, joan ara, eta fraile-jakerak kentzen asi zitzaion.

Etori ziran bereala fraileen mutil bi, eta, zergatik soiñeko-kentzen ari ote zitzaion, galdetu zioten. Ura legebidez beretzat zala, erantzun zien Santxo'k; bere nagusi Don Kijote'k irabazitako burrukaren ordaiñ-ondotzat alegia. Morroi aiek alabaiña, ipuitxantetan ikasi gabeak, eta burruka-gaiñenaiz ordaiñ-kontutan oitu gabeak, Don Kijote andik urrutira alde-egin ta karroxan zetozen aiekin izketan zegola ikusiaz, ekin zioten Santxo'ri eta erauzi zuten lurrera eta kokotzeko ille bat bakarrik utzi gabe ebaindu zuten ostikoka, eta lurrean etzan-ta utzi zuten, asnasik eta korderik gabe. Bereala ta luzapenik gabe, igo zan frailea mandogaiñera, aurpegia zuri-zuri, erabat izutu ta beldurtua; eta bere burua zaldi-gaiñean ikusi zuanean, eragin zion bere adiskideaganantz, au an bait-zegokion zai-zai andik urruti-antzean, estualdi ura guzia zertan bukatuko larri-aski; eta asitako gertaizuna zernola amaituko itxo-egiteke, beren bidetari jarraitu zioten, atzetik deabrua balute

—Señor caballero, nosotros no somos endiablados ni descomunales, sino dos religiosos de San Benito que vamos nuestro camino, y no sabemos si en este coche vienen o no ningunas forzadas princesas.

—Para conmigo no hay palabras blandas; que ya yo os conozco, fementida canalla —dijo don Quijote.

Y sin esperar más respuesta, picó a Rocinante y, la lanza baja, arremetió contra el primero fraile, con tanta furia y desnudo, que si el fraile no se dejara caer de la mula, él le hiciera venir al suelo mal de su grado, y aun mal ferido, si no cayera muerto. El segundo religioso, que vió del modo que trataban a su compañero, puso piernas al castillo de su buena mula, y comenzó a correr por aquella campaña, más ligera que el mismo viento.

Sancho Panza, que vió en el suelo al fraile, apeándose ligeramente de su asno, arremetió a él y le comenzó a quitar los hábitos. Llegaron en esto dos mozos de los frailes y preguntáronle que por qué le desnudaba. Respondióles Sancho que aquello le tocaba a él ligitimamente, como despojos de la batalla que su señor don Quijote había ganado. Los mozos, que no sabían de burlas, ni entendían aquello de despojos ni batallas, viendo que ya don Quijote estaba desviado de allí, hablando con las que en el coche venían, arremetieron con Sancho y dieron con él en el suelo, y, sin dejarle pelo en las barbas, le molieron a coces y le dejaron tendido en el suelo, sin aliento ni sentido; y, sin detenerse un punto, tornó a subir el fraile, todo temeroso y acobardado y sin color en el rostro, y cuando se vió a caballo, picó tras su compañero, que un buen espacio de allí le estaba aguardando y esperando en qué paraba aquel sobresalto, y, sin querer aguardar el fin de todo aquel comenzado suceso, siguieron su camino, haciéndose más cruces que si llevaran al diablo a las espaldas.

baño "aitaren" ugariago egiñaz. Don Kijote, leen ere esan da-ta, karroxako anderea-kin izketan zegon, esanaz:

—Edertasuna zeran orrek, andere ne-rea, zure buruaz zer-egiñ, nai duzun eran erabaki zenezake, zure lapurren ausar-dikera lurtean eroria bait-datza, nere beso onen indarrak etzan-erazia. Eta zure as-kaizaillearen izena jakitearren saiatzen ez zeran ezkerro, ara bada, jakin ezazu, Don Kijote Mantxa'ko dala nere izena, zaldun ibiltari ta burruka-zalea, eta pare-gabeko ederra dan Dulzinea Toboso'koaren men-peko katigua; eta neregandik artu duzun mesedearen ordainez ez dut besterik nai, auxen: itzuli zaite Toboso'ra, eta zoaz nere partetik andere onengana, eta esan akio-zu nik zu askatzearren egin dudana.

Don Kijote'k zion guzi-au, entzun-ta-entzun zegon, karroxari lagunduaz zeto-zen ezkutari aietako bat; euskalduna zan bera; ikusirik onek ez ziola karroxari au-rreara jarraitzen utzi nai, baizik-eta, lenbai-len Toboso aldera biurtzeko esaten ziola, joan zan Don Kijote'gana, eldu zion lan-tzatik eta onela mintzatu zitzaion, trakets-gazteleraz eta traketsagoko euskeraz:

—Utikan, zaldun, alde emendik! Sor-tu ninduan Jainkoagatik, pakean uzten ez baduk karroxa, bertan ilko aiz, euskal-dun bat ementxe dagokiken bezala!

Ongi-aski ulertu zion Don Kijote'k, eta lasai-lasai erantzun:

—Ez aiz, baiña zaldun ba'itzake, zi-gortu nian bai onezkerro ire erokeri au-sarta, oienpeko sorkari orrena.

Euskaldunak orreri, onela berriz:

—Ni zaldun ezetz? Alajainkoa! Gezurti aiz kristau ainbat. Lantza utzi-ta, ezpata artzen baduk, laster ikusiko duk katua uretara doakikela; euskaldun lurrez-lur, jaun-sume itsasoz-itsaso, eta etxeko-sume arraio guztiengatik; eta gezur-gezurra, ots, besterik badiok.

—Bereala ikusiko duk, Agrajes'ek lio-ke —Don Kijote'k erantzun—, eta lantza lurrera bota-ta, ezpata arturik eta rodela besoan, ekin zion euskaldunari, bizia kentzeko asmo osoan.

Don Quijote estaba, como se ha di-cho, hablando con la señora del coche, diciéndole:

—La vuestra fermosura, señora mia, puede fazer de su persona lo que más le viniere en talante, porque ya la soberbia de vuestros robadores yace por el suelo, derribada por este mi fuerte brazo; y por-que no penéis por saber el nombre de vuestro libertador, sabed que yo me lla-mo don Quijote de la Mancha, caballero andante y aventurero, y cautivo de la sin par y hermosa doña Dulzinea del Tobo-so; y en pago del beneficio que de mí habéis recebido, no quiero otra cosa sino que volváis al Toboso, y que de mi parte os presentéis ante esta señora y le digáis lo que por vuestra libertad he hecho.

Todo esto que don Quijote decía es-cuchaba un escudero de los que el co-che acompañaban, que era vizcaíno; el cual, viendo que no quería dejar pasar el coche adelante, sino que decía que lue-go había de dar la vuelta al Toboso, se fué para don Quijote, y, asiéndole de la lanza, le dijo en mala lengua castellana y peor vizcaína desta manera:

—Anda, caballero, que mal andes; por el Dios que crióme que si no dejas coche, así te matas como estás ahí viz-caíno.

Entendióle muy bien don Quijote, y con mucho sosiego le respondió:

—Si fueras caballero, como no lo eres, ya yo hubiera castigado tu sandez y atre-vimiento, cautiva criatura.

A lo cual replicó el Vizcaíno:

—¿Yo no caballero? Juro a Dios tan mientes como cristiano. Si lanza arrojas y espada sacas, ¡el agua cuán presto ve-rás que al gato llevas! Vizcaíno por tierra, hidalgo por mar, hidalgo por el diablo, y mientes que mira si otra dices cosa.

—¡Ahora lo veredes, dijo Agrajes! —respondió don Quijote.

Y arrojando la lanza en el suelo, sacó su espada y embrazó su rodela, y arre-metió al Vizcaíno, con determinación de

Euskaldunak, onela ba zetorkiola ikusi zuanean, bere ezpata ateratzez-beste ez zuan ezertxo ere aal izan; jeitxi nai izan zuan bai mando-gaiñetik (izan ere alkilerreko oietakoa izanik ez bait-zan fida-tzekoa); baiña, ain egoki ere, karroxaren ondoan zegon, eta andik artu aal izan zuan buruki bat, ezkututzat balioko ziona; eta ondorean, an joan ziran bata-bes-tearengana, etsai amorratuak balira bezela. Pakea egin nai zien beste jendeak, baiña eziñ; zera bait-zion euskaldunak bere itsu-mutsuzko izketan, bere burruka ura amaitzen uzten ez bazioten, berak ilko zuala, bai bere anderea ta baita galez-razi naiko zion guztia ere. Karroxako andereak, bere begiz ikusten zuan artaz arriturik eta izu-izu egiña, andik pixkat urrutierazi zion karroxariari, eta urruti-antzetik, ekiñaldi gogorrari begira jarri zan; ari zirala ari, eman zion euskaldunak Don Kijote'ri labainkada astun bat lepa-gaiñean; rodela-gaiñetik ordea; bestela, soillean eman balio, irekiko zuan gerriraiño. Nabaritu zuan Don Kijote'k kolpe zakar aren astuna, eta deadar egiñ onela esan zuan:

—Ene Dulzinea, edertasunaren lore, nere biotzaren jabe! zatoz arren zure zaldun onengana; larrialdi estu ontan bait-nago, zure biotz onari nere ontatik emateagatik!

Au esatea, ezpatari estu eltzea, rodela-lapean ongi babestea eta euskaldunari ekitea, dana bat-batean izan zan; kolpe bakar batera dana jokatzeko asmo erabakia izanaz noski. Euskaldunak, bere gaiñera zetorkiola ikusiaz, garbi aski antz-eman zion aren azkarretik barrengo suari, eta Don Kijote'k bezelaxen egitea erabaki zuan; eta onela, burukiaz ongi babestua, zai egon zitzaion; ezin bait-zuan bere mandoa aruntz-onunzka inguru-erazi; izan ere, neka-neka egiña zegon mandoa, ta onelako umekeritan oitu gabea izanik, ez zan gauza pauso bat emateko.

Ba zetorren bada, esan dan bezela, euskaldun zuurraren aurka Don Kijote,

quitarle la vida. El Vizcaíno, que así le vió venir, aunque quisiera apearse de la mula, que por ser de las malas de alquiler no había que fiar en ella, no pudo hacer otra cosa sino sacar su espada; pero avínole bien que se halló junto al coche, de donde pudo tomar una almohada, que le sirvió de escudo, y luego se fueron el uno para el otro, como si fueran dos mortales enemigos. La demás gente quisiera ponerlos en paz; mas no pudo, porque decía el Vizcaíno en sus mal trabadas razones que si no le dejaban acabar su batalla, que él mismo había de matar a su ama y a toda la gente que se lo estorbaba. La señora del coche, admirada y temerosa de lo que veía, hizo al cochero que se desviase de allí algún poco, y desde lejos se puso a mirar la rigurosa contienda, en el discurso de la cual dió el Vizcaíno una gran cuchillada a don Quijote encima de un hombro, por encima de la rodela, que, a dársela sin defensa, le abriera hasta la cintura. Don Quijote, que sintió la pesadumbre de aquel desaforado golpe, dió una gran voz, diciendo:

—¡Oh, señora de mi alma, Dulcinea, flor de la fermosura, socorred a este vuestro caballero, que, por satisfacer a la vuestra mucha bondad, en este riguroso trance se halla!

El decir esto, y al apretar la espada, y el cubrirse bien de su rodela, y el arremeter al Vizcaíno, todo fué en un tiempo, llevando determinación de aventurarlo todo a la de un golpe solo.

El Vizcaíno, que así le vió venir contra él, bien entendió por su denuedo su coraje, y determinó de hacer lo mesmo que don Quijote; y así, le aguardó bien cubierto de su almohada, sin poder rodear la mula a una ni a otra parte; que ya, de puro cansada y no hecha a semejantes niñerías, no podía dar un paso. Venía, pues, como se ha dicho, don Quijote contra el cauto Vizcaíno, con la espada en alto, con determinación de abrir-

ezpata gora jasorik, bertan erdibitzeko asmo bizitan; euskalduna zai zegokion alaberean, ezpata gora jasorik eta burukiaren girizian; inguruko guztiak ikaraz zeuden eta dardara bizian, zer gertatu bear ote zuan; alakoxe kolpetzarrak agintzen zizkioten batak-besteari; karroxako anderea ta bere neskamea, milla errezuopari eskeinka ari ziran Espaiña'ko otoitzetxe ta imajiña guztiei, arren ta arren libra zitzala, bera ta beren ezkutaria sarturik zeuden galzori larri artatik.

Baiña gauza onek ba du bere akatsa, auxe: burruka onen kondaira idatzi zuanak, une ontan bertan moztu-ta zintzilik utzi zuala, aitzaki emanaz, alegia, ez zuala ezer arkitu paperetan Don Kijote'ren ekintza auetaz, berak idatzirik uzten dituan oietaz-beste. Egia da bai, kondaira onen bigarren egilleak ez zuan sinistu nai izan, ain jakingarritzko istoria aantzi-bidetan galdua izango zanik; ezta ere, Mantxa-aldeko buru argiak ain nagiak izango ziranik, zaldun famatu ontaz ziarduten paperen batzuk jaso gabe, beren idaztegi edo idazgeletan; onela bada, ez zuan etsi nai izan istoria paketsu onen bukiera arkitzeke; eta arkitu ere arkitu zuan, urrengo atalean esango dan bezela.

IX ATALBURUA

MANTXA'KO ADORETSUAK ETA EUSKALDUN KEMENTSUAK IZANDAKO BURRUKA IKARAGARRIAREN BURUTZEA TA BUKAERA.

Kondaira onen lenengo atalean, an utzi ditugu Don Kijote famatua ta euskaldun kementsua, beren ezpatak gorri-gorri goian, batak besteari ikaragarritzko zatzadak emateko antzean edo; aiñ ala noski, bete-betean batak-beste jo ezkerro, goitik-beiti erdibiturik geldituko ziran, sagarra erdiz-erdi oi dan bezelaxe; eta

le por medio, y el Vizcaíno le aguardaba ansimesmo levantada la espada y aforrado con su almohada, y todos los circunstantes estaban temerosos y colgados de lo que había de suceder de aquellos tamaños golpes con que se amenazaban; y la señora del coche y las demás criadas suyas estaban haciendo mil votos y ofrecimientos a todas las imágenes y casas de devoción de España, por que Dios librase a su escudero y a ellas de aquel tan grande peligro en que se hallaban. Pero está el daño de todo esto que en este punto y término deja pendiente el autor desta historia esta batalla, disculpándose que no halló más escrito destas hazañas de don Quijote de las que deja referidas. Bien es verdad que el segundo autor desta obra no quiso creer que tan curiosa historia estuviese entregada a las leyes del olvido, ni que hubiesen sido tan poco curiosos los ingenios de la Mancha, que no tuviesen en sus archivos o en sus escritorios algunos papeles que deste famoso caballero tratasen, y así, con esta imaginación, no se desesperó de hallar el fin desta apacible historia, el cual, siéndole el cielo favorable, le halló del modo que se contará en la segunda parte.

CAPITULO IX

DONDE SE CONCLUYE Y DA FIN A LA ESTUPENDA BATALLA QUE EL GALLARDO VIZCAINO Y EL VALIENTE MANCHEGO TUVIERON.

Dejamos en la primera parte desta historia al valeroso Vizcaíno y al famoso don Quijote con las espadas altas y desnudas, en guisa de descargar dos furibundos fendientes, tales, que si en lleno se acertaban, por lo menos, se dividirían y fenderían de arriba abajo y abrirían como una granada, y en aquel punto tan dudo-

une artan, zalantza artan, moztu-ta gelditu zan ain gozagarrik kondaira; bere egilleak ez zigun jakiñerazten nondik-nora ikasi genezaken, ari falta zitzaiona. Naigabe aundia eman zidan onek; ain gutxi irakurriak eman zidan atsegiña, atsekabe biurtu bait-zitzaidan, ikusi nuan, zeihen bide estua neukan ta zenbat arkitzeko; asko bait-zan kondaira gozo ari falta zitzaiona oraindik.

Eziñezkoa iruditu zitzaidan eta giza-legerik gabea, aín zaldun zintzoak letraduren bat ez izana, bere ekintza miragarriak paperean jasotzea, bere gain artuko zuana; nere ustetan, orrenbesteko bat ez zitzaion falta izan zaldun ibiltari aietako ñori ere, “beren burrukaizunetara omen doazela” dioten aietakoei; izan ere, aietako bakoitzak ba zituan bizpairu letradu, egokiak ala-ere, egintzak ezik, aien umekeri ta gogaldirik ttikienak jasotzen zituztenak, ezkutu-ezkutukoak izan-ta ere; eziñ izango zan, bada, aín zoritxarrekoa gure zaldun zintzoa. Platir ta olakoek geiegian izandakoa, berak deus ez izatea. Onela bada, eziñ baietsi nuan, ain kemengarrizko istoria besamotz elbar geldituko zanik; eta denboraren joan-etorria gaiztoari errua ematen nion, gauza guzien xeetzaille ta jale izanik, nonbait xeeturik edo gordean eukiko bait-zuan. Bestalde, “Utsa ta utsa, kezka-miñaren miña” ta “Enares'ko Artzaiak ta Maitagarriak”, ain liburu berriak izanik, antxe zeuden aren liburuen artean; eta, nere iritzian, aren istoriak ere berria izan bear zuan; eta idatzirik ez egon-ta ere, aren erriko ta inguruetako jendeak gogoan izango zuala beintzat. Nere uste onek zoratu bear ninduan, eta ixira bizia ematen zidan, gure espaiñar famatu Don Kijote Mantxako'aren bizi-mirariak beren berezko egitan jakiteko; izan ere ba zan ura Mantxa-aldeko zalduntza-eredu argia, eta gure garai ontan, zoritxarreko denbora auetan, aurren-aurreneko ekin ziona: arma ibiltarien lanbide ta eginkizunari, eta kalte-gaitzak desegiteari, eta

so paró y quedó destroncada tan sabrosa historia, sin que nos diese noticia su autor dónde se podría hallar lo que della faltaba.

Causóme esto mucha pesadumbre, porque el gusto de haber leído tan poco se volvía en disgusto, de pensar el mal camino que se ofrecía para hallar lo mucho que, a mi parecer, faltaba de tan sabroso cuento. Parecióme cosa imposible y fuera de toda buena costumbre que a tan buen caballero le hubiese faltado algún sabio que tomara a cargo el escribir sus nunca vistas hazañas, cosa que no faltó a ninguno de los caballeros andantes,

“de los que dicen las gentes que van a sus aventuras,”

porque cada uno dellos tenía uno o dos sabios, como de molde, que no solamente escribían sus hechos, sino que pintaban sus más mínimos pensamientos y niñerías, por más escondidas que fuesen; y no había de ser tan desdichado tan buen caballero, que le faltase a él lo que sobró a Platir y a otros semejantes, y así, no podía inclinarme a creer que tan gallarda historia hubiese quedado manca y estropeada, y echaba la culpa a la malignidad del tiempo, devorador y consumidor de todas las cosas, el cual, o la tenía oculta, o consumida.

Por otra parte, me parecía que, pues entre sus libros se habían hallado tan modernos como *Desengaño de celos y Ninfas y pastores de Henares*, que también su historia debía de ser moderna, y que, ya que no estuviese escrita, estaría en la memoria de la gente de su aldea y de las a ella circunvecinas. Esta imaginación me traía confuso y deseoso de saber real y verdaderamente toda la vida y milagros de nuestro famoso español don Quijote de la Mancha, luz y espejo de la caballería manchega, y el primero que en nuestra edad y en estos tan calamitosos tiempos se puso al trabajo y ejercicio de

alargunak babestu ta neskak zaintzeari, mendirik mendi ta ibarrik ibar ibilli oi ziran neska aietakoak garbitasuna soñean, beren abere motel, azote-ede ta guzi; alabaiña, lotsagaberen batek, edo billauren batek (aixkora eskuan, zakua lepoan) edo erraldoitzarren batek ez beartzera oso-osorik amak egin-ta bezelaxe, illobira joandako neskarik izan izandu bait-da; aintziñako denboretan noski, ta larogei urteren buruan beñ bakarrik teillatupéan lorik egin gabekoa. Auxen diot bada, arrazoi onen eta beste askorengatik, zor zaizkiola gure Don Kijote lerdinari etengabeko laudorio oroigarriak; eta neroni ere, ez zaizkidala ukatu bear, istoria polit onen bukaera-billa ainbeste lan ta arreta jarri bait-dut; ba dakit bai, alare, zeruak eta alabearrak eta aldarte onak lagundu ez balidate, munduak uragabe bearko zuala; eta, alde-alde, bi ordurako denbora-pasa alaigarria galduko zuala; olakoren bat izango bait-du zentzuz irakurtzen duanak. Onela izan zan, bada, aren arkitzea.

Bein batean Toledo'ko Alkana-kalean nengoela, mutiko bat etorri zan sedasaltzaille batengana, paper-zar sorta bat eskeñiaz; eta irakurzalea izanik ni, naiz-ta kalean botatako paper-puskak izan, nerzko griña onek eragin-ta artu nuan eskutan mutikoak zekarzkian sorta aietako bat, eta arabe-ikurrez idatzia zegoela antz-eman nion; ezagutzen nituan bai, baiña ez nakien irakurtzen, eta begirabegira asi nintzan, ea, an nonbaitik, irakurriko zizkidan morisko aljamiaturen bat agertzen ote zan; ez zan oso zailla izan onelako ele-bi-dun bat arkitzea; beste izkuntza obe ta zaarragorako ere nai izan banu, arkituko nuan noski. Azkenean, bat aukeratu zidan alabearrak; esan nion nere gogoa, eskutan jarri nion liburua, ireki zuan erdiz-erdi, eta farrez asi zan, pixkat irakurri zuanean. Galde-egin nion ea zergatik, eta zera erantzun zidan: gauzatxo bat zekarrela liburu ark, orri-bazterrean

